

Besoitaetxebarria (-a) etxebizitza

Aldaerak: Gonengoetxebarri
Ahozkoa:



43° 11' 19"

2° 34' 30"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

XX. mendearen hasieran, 1903 inguruan, eraikitako bizitza bakarreko baserria dugu. Besoita inguruan eraikitako azken baserria izateak eman dio izena. Auzotarren artean, *Gonengoetxebarri* moduan ezagutu izan da.

Baserri neoklasikoa da, XIX. mendean nagusitu zen goranzko tendentzia bistan duena. Fatxadetan bi bolumen dira inportanteak: batak sarrera dauka eta bietan soilena da, eta besteak bailarara ematen du. Lehen gorputza hiru ardatzetan antolatuta dago, oso modu sinplean. Erdian atea dauka, eta alboetan, leiho bana. Goiko solairuan eskema bera errepikatzen da leihoetan. Ganbaran, berriz, izkinetan leiho txikiak zabaldu zizkioten. Erdian, inskripzioa jartzeko plaka bat dauka, *Aranguren etxebarria* etxearen bezalakoa, baina hutsik utzi zuten.

Beste fatxadaren ezaugarriarik nabarmenena lehenengo solairuan alderik alde doan balkoi luzea da, teilatuaren hegalarri paraleloan. Hamaita harrizko mentsulek eusten diote, material bereko zorua dauka, eta burdinazko karela. Bertara zabaltzen dira leiho luze bi, plakadun moldura dutenak ertzetan, eta beste txikiago bat erdian, leihoburua zerbait gorago izanik. Beheko baocak antolamendu berdina daukate. Kantaletan eta bao guztietan, harlandu bikaina erabili zuten. XIX. mendearen erdialdeko baserria da, eta erlazio estilistiko zuzena dauka *Aranguren etxebarria* (**Ikus Aranguren etxebarria**) baserriarekin (1851n eraikia).

toponimia

Berrizen badira -ita amaiera duten leku izen asko eta Etxeita kasuan hasieran etxe egon daitekeela pentsa daitekeen arren beste batzuetan hasierako osagaia pertsona izen bat izan litekeela pentsa genezake. Hori balitz kasu honetan Beso edo antzeko zerbait izan genezake, baina datu gehiago beharko genuke zerbait ganoraz ondorioztatzeko. Kasu honetan Besoita auzoko etxe berria da. Deigarria da holakoetan batzuetan barri gehitzea eta beste batzuetan, berriz, etxebarri.